

**IL ULERMEN PROBA** • *Gerezi denbora*

Izen-deiturak ..... Taldea .....

> Markatu (X) erantzunak (25) test laukian: E F (Egia / Faltsua)

> Gaizki erantzundakoek ez dute negatiborik\* (\*Zutabe bat osorik markatu ezean)

Zuzen		
Negatib.		
GUZT.		/ 25
Kalifikaz.		/ 10

1. Fructuosok Bilbon libertario talde bat osatu zuen, "Los vascos" izenekoa.
2. "Santujaleak", libertarioen hizkeran, beraien taldeetan infiltratutako jendea ziren.
3. Don Roman eta protagonista Karmenen bidez egin ziren adiskide; lehenago ez zuten elkar ezagutzen.
4. Don Roman boxeolari ere ibili zen eta gero apaizgaitegian sartu zen, protagonistarekin batera.
5. Fructuoso pertsona jakintsua, errespetuzkoa eta orekatua zen.
6. Karmen eta Andres pertsonaiak elkarrekin dabilta, eta bikotea osatzen dute eleberrian.
7. Fructuosok hasiera-hasieratik bazekien don Roman apaiza zela eta ez libertarioa, baina ezkutuan gorde zuen.
8. Don Roman protagonistaren bila joan zen Donostiara, han bertan ekintza bat egiteko.
9. Eleberrian azaltzen den istorioak Bilbon du hasiera.
10. Eleberriko istorioa hasten den garaian Irun faxisten menpe eroria zen.
11. Durruti libertarioen etsairik handiena zen, traidore gorrotagarria.
12. Fructuoso engainatu egin zuten don Roman Durrutiren mandataria zela iradokita.
13. Taldea osatuta Donostiara auto ofizial batean abiatu ziren denak.
14. "Gerezi denbora" Parisko komunazale (komunero) zaharren kantua zela esaten da eleberrian.
15. "Gerezi denbora" kantuaren letra, frantsesez, bazekiten protagonistak eta taldekideek.
16. Taldea, Donostiarako bidean, Eibarren gelditu zen bazkaltzeko.
17. Donostiara bidean egin zuten bazkaria exkaxa, txarra izan zen.
18. *Le temps de cerises* kantutik dator eleberriaren titulua, anarkisten garaiko istorioa dela adierazteko-edo.
19. Fructuosok pintadak egiteko zaletasuna zeukan, pintada anarkistak.
20. Artzapezpikuaren bila Donostiara iritsi zirenean, taldeko Andres, Roman eta Karmen bakarrik geratu ziren, besteak aldegin.
21. Donostian, don Romanek Irujo diputatuarekin hitz egin zuen, baina ez zuen laguntzarik lortu artzapezpikua askatzeko.
22. Donostian, artzapezpikua askatzekotan zebiltzala, Andresek aitortu zion Karmeni bera eta don Román ez zirela anarkistak.
23. Karmen Andresekin baino lehenago ez zen beste mutil batekin ere ibilia.
24. Karmenek eta Andresek artzapezpikua bere bahitzaileekin kartajokoan aurkitu zuten, musean.
25. Txanpaina edan eta edan, Karmen eta Andres ia mozkorturik geratu ziren artzapezpikuari itxaroten zeudela.

	E	F
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		
16		
17		
18		
19		
20		
21		
22		
23		
24		
25		